



OINARRIAK

VI. Jose Ignacio Ruiz OLABUENAGA Ikerketa beka

XEDEA

Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak (ESZPE), Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineterekin lankidetzan, ikerketa soziologikoko lan bat egiteko laguntza baterako deialdia egin du.

Ikerketaren gaiak Euskal Herriko errealitate soziopolitikoak hobeto ezagutzen lagundu beharko du:

1. Metodologia/teknika/teknologia berriak ikerketa sozialean
2. Botoa aurreikusteko teknikak
3. Hauteskunde-portaera iragartzeko metodologiak
4. Gizarte-joera berrien eta egitura-aldaketen azterketa euskal gizarteetan
5. Klima-aldaketa, larrialdi klimatikoa, iraultza energetikoa
6. Trantsizio demografikoa eta horren ondorioak
7. Etxebizitza: etxebizitza eskuratzeko zailtasunak
8. Atzerritar jatorriko immigrazioa: harrera eta gizarteratzea
9. Gizarteratzea eta laneratzea, gizarte-desberdintasunak eta pobrezia
10. Digitalizazioaren eta adimen artifizialaren inpaktua
11. Gobernantza-modu berriak: erakunde eta sistema politikoentzako erronkak
12. Euskal nortasunarekin eta kulturarekin lotutako ikerketak
13. Euskadiko gazteak: beharrak eta erronkak
14. Genero-berdintasuna: indarkeria matxista, sexu-harremanak, etab

Ikerketa originala eta argitaratu gabea izan beharko da. Genero-ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista baloratuko dira idazketan.

ESKATZAILEAK

Pertsona juridikoak, pertsona fisikoak edo pertsona fisikoen taldeak izan daitezke, Soziologiako eta Politika Zientzietako goi-mailako unibertsitate-titulua dutenak eta administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak.

Pertsona fisikoen talde bat izanez gero, haietako bat izendatu beharko da proiektuaren koordinatzaile, eta, gutxienez, Soziologiako edota Zientzia Politikoetako goi-mailako unibertsitate-titulua izan beharko du.

José Ignacio Ruiz Olabuenaga ikerketa-beka baten onuradun izan den ikertzaile-taldeko kide bat ezin izango da berriz onuradun izan hurrengo hiru edizioetan.



IKERKETA EGITEKO EPEA

Behin betiko jatorrizkoa 2026eko azaroaren 15a baino lehen entregatu beharko da.

KOPURU EKONOMIKOA

Ikerketa egiteko diru-kopurua 8.000 eurokoa izango da.

Lehen ordainketa, 3.000 eurokoa, ebazpenaren ondoren egingo da, eta bigarrena, 5.000koa, azken lana entregatu eta baloratu ondoren.

HIZKUNTZA

Ikerketa-proiektua euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da.

ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskabidea behar bezala izapidetzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira (pdf formatuan):

- Deialdian parte hartzeko eskabidea (I. eranskina).
- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo pertsonen azken hiru urteetako *curriculum vitae*. Merezimendu akademikoak, profesionalak, ikerketakoak, argitalpenak, sariak eta abar jaso beharko ditu. (II. eranskina).
- Ikerketa euskaraz egingo bada, ikerketa eta amaierako dokumentua euskaraz egiteko konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).
- Aurkezten den pertsonaren edo pertsonen Soziologiako eta/edo Zientzia Politikoko ikasketak egiaztatzen dituen titulua edo espediente akademikoa.
- EAEn errolatuta egotearen ziurtagiria.
- Ikerketa-proiektua. Atal hauek jaso beharko ditu (15 orrialde gehienez):
 - Proiektuaren izenburua.
 - Gai orokorra, aurrekariak eta gaiaren egungo egoera.
 - Helburuak.
 - Metodologia.
 - Kronograma.
 - Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
 - Pertsonaren edo taldearen esperientzia ikertu beharreko gaiarekin.
- Proiektu bera egiteko beste diru-laguntza edo laguntzaren bat eskatu edo lortu bada, zehaztu zein den diru-laguntza, horren erakundea, helburua eta zenbatekoa.

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak bide telematikoz aurkeztu behar dira, eta Euskal Soziologia eta Politika Zientzien Elkartearen posta helbidera bidali: avsp@avsp.eus.

Eskabideak entregatzeko epea 2026. urteko otsailaren 15an bukatzen da.



HAUTAKETA-BATZORDEA:

Hautaketa Batzordea Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak izendatutako bi kidek eta ESZPEko beste bik osatuko dute. Batzordeko lehendakaria Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak izendatutako kideetako bat izango da. Laguntzak nori eman erabakitzeke botazioetan berdintasuna badago, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira.

Jarraian, kontuan hartuko diren ebaluazio-irizpideak zehazten dira:

- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo pertsonen curriculum vitae: 25 puntu.
- Ikerketa-proiektua: 70 puntu.
 - Gaiaren interesa eta originaltasuna: (15 puntu deialdiko lehenengo 3 gaiantzat, eta 10 puntu gainerakoentzat).
 - Euskal errealitate soziopolitikoarekiko harremana (15 puntu).
 - Helburuen eta metodologiaren arteko lotura eta koherentzia. (20 puntu).
 - Esperotako emaitzen definizioa. (15 puntu).
 - Genero-ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista. (5 puntu).
- Ikerketa euskaraz egitea: 5 puntu

Puntuazio handiena lortzen duen proposamena aukeratutakoa izango da. Era berean, ordezko proposamenen zerrenda bat ezarriko da, aukeratuak laguntzari uko egiten badio ere. Proposamen batek ere ez badu eskatutako gutxieneko kalitatea betetzen, deialdia hutsik gera daiteke; horretarako, gutxienez 50 puntu edo gehiago lortu beharko dituzte proposamenek.

DEIALDIAREN OINARRIEN BETEBEHARRAK ETA INTERPRETAZIOA

- Eskabidearen dokumentazioa aurkeztea.
- Laguntza idatziz onartzea.
- Bitarteko jarraipen-bilerak egitea ikerketa-proiektuaren egoera ezagutzeko.
- Aurreikusitako planean edo lantaldean aldaketarik egonez gero, laguntza deitzen duten erakundeei horien berri eman beharko zaie.
- Epe barruan ematea ikerlanaren azken dokumentua eta haren laburpen bat (abstract, 300 hitz baino gutxiagokoa), euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
- Ezarritako betebeharrak ez betetzeak ordaindutako zenbatekoak itzultzea ekar dezake, bai hasierakoak, bai amaierakoak.
- Deialdia egin duten erakundeek oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza argituko dute.
- Bekadunak eta, hala badagokio, bekaren zenbatekoa taldeko kideen artean banatzen bada, kide guztiek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.



ARGITALPENA ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Egindako ikerketa Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu ahal izango du. Argitalpena adostuz gero, egileek lana EAeko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahalko dute, euskaraz zein gaztelaniaz. Hizkuntza bakar batean entregatzen bada, Kabinetea arduratuko da argitalpenaren itzulpenaz..

Era berean, Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin bat etorri, hitzaldi-aurkezpen bat antolatu ahal izango du azken txostenaren edukia zabaltzeko, ikerketaren egilearen (edo egileen) parte-hartzearekin, aldeztu aurretik data eta baldintzak adostuta.

Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du aukeratutako proiektuaren egileak, modu ez eskusiboan, egindako ikerketa-lana ustiatzeko eskubideak lagatzen dituela, erabilera-, hedapen-, banaketa-, erakustaldi-, komunikazio publiko-, dibulgazio- eta erreproduktzio- eskubideak barne, hainbat bitartekoren bidez hedatzeko eta jendearen eskura jartzeko.

Lagapen hori doan egiten da, ez modu eskusiboan, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupen-eperako, hau da, jabari publikora igaro arte, eta munduko herrialde guztietara hedatzen da, salbuespenik gabe.

Egileak Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 14. artikulua esleitzen dizkion eskubide moral ukaezinak eta besterenezinak izango ditu.

Egileak bere gain hartzen du obraren originaltasunaren erantzukizuna (obra osoa edo zati bat ez da izango dagoeneko argitaratuta dauden beste lan batzuen edo beste pertsona batzuen kopia, plagioa, birsorkuntza edo aldaketa), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri lagatzen zaizkion eskubideen gozamenaren erantzukizuna ere, eta adierazten du obra horren gainean ez duela inolako konpromisorik edo kargarik hartuta eta ezta hartuko ere, klausula honetan ezarritakoaren aurka doazenak edo egiten dutenak. Halaber, adierazten du ez dituela hirugarrenen eskubideak urratzen, eta, hala badagokio, hirugarrenen baimen egokiak jaso dituela.

Egileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra salbuesten du hirugarrenek obraren inguruan egindako erreklamazioen edo betebeharrak ez betetzearen ondoriozko gatazken ondoriozko erantzukizunetik.

Obra ustiatzeko eskubideak lagatzearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ahalmena du, baina ez dago behartuta, obra hori Internet, sare sozial edo haren berri emateko egokitzat jotzen duen beste edozein bitarteko erabiliz zabaltzeko edo argitaratzeko.

Datuen babesari buruzko informazio oinarria

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga beka deialdia.

Arduraduna: Azterlanen Zuzendaritza, Lehendakaritza

Helburua: Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga beken kudeaketa pertsona fisiko eta juridikoentzat.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. (RGPD Art. 6.1.c)



- Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko. (RGPD Art. 6.1.e)

Hartzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko **Informazio gehigarri eta zehaztua:**

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/178300-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1783

INFORMAZIOA:

Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkarteak: avsp@avsp.eus